

Atarikoa

*X*abier Zubiri egizale jakintsuaren omenetan bildu ginen Euskalerriko bere jaioterrian, Donostian alegia, bera hil eta handik laisterrera. Harenak gogora ekarri eta bere nor izanari omen egiteko ditugun zioen berri, aditzera emanak gara Donostiako ihardunaldi haietan. Baina, han esanak ez genituzke orduko entzuleen belarrietan bakarrik gorde nahi. Izan ere, bidezkoa bai dirudi, gure herrikoa izanik, hain omengarrizat jotzen dugun Xabier Zubiri, ahalik eta gehienei ezagutzera ematea. Horrela egin nahi izan genion omen Donostiako ihardunaldietan. Eta zer egokiagorik, orduko lanari jarraitzea baino, Zubiriren azterlari eta ikerlari zuhurrek eskaini zizkiguten hitzaldiak bildu eta argitaratuz?

Eta halabeharrez, hitzaldi hoiien bildumari atarikoa zabaldu beharrean-edo gertatzen naiz. Nere luma, baina, amutzegia da, nolana ere, Zubiriren atarira inguratuko gaituen biderik urratzen hasteko. Hain zuzen, Xabier Zubiri berez izan nor zenaren—eta nor zaigunaren— atarira zuzenduko gaituzten bideak besterik ez dira liburu hontan bildu ditugun hitzaldiak. Nere hitzok beraz, alferrik ez ote datozen galdetuko nuke.

Baina, hontara jarri nautenez gero, aitortu beharrean nago,

Zubiriren atarian ibiltzeko zoria izan duen hoietakoa naizela. Bosten bat ordu besterik ez nintzen egon berarekin solasean, baina beren laburrean ere, dagoeneko tarte berezia osatzen dute ordu haiek nere bizitaren etorrian.

Zubiri —bere emaztea, bere Karmen kuttuna, lagun zuela— agurtu eta entzuteko aukera izan nueneko hartan, berezkoaren bila zebilen begirada argi eta sakoneko jakintsu garai baten itzalpean aurkitu nuen neure burua. Zubiriren begipeko ataria, zera ororen, nor ororen, izan baden ororen berezkoari buruzko galderaz estalitako ataria gertatu zitzaidan. Hondarrabin eta larøgeitahiruko udaldiko oporretan, bera hil aurreko egunetan alegia, gertatu gainera. Solasaldi hain laburrean zaila da inor ezagutzea. Bainan jabetu nintzen, maiteago zuela Zubirik, berezkoaren usaia galdu ez duen atari egurastua, berezkoaren beldurrez jasotako etxe ustelkorren babes gezurtia baino. Jabetu nintzen, Zubirik etzituela bere begiak itsi nahi, den edonoren eta edozeren berezkoa bere gogaira asmatu eta eratzeko, baizik zabalik nahi zituela begiak, berezkoaren aztarnak jaso, bildu eta adigarri bihurtzeko. Hargatik zen Zubiri gure mendeko fisikari jakintsuenen lagun, irakurle eta aztertzaile aspergaitza. Txunditurik utzi ninduen bere hizketak; zertaz ari zen ondo bai zekien, fisikaren egungo ekarririk berrienetaz ari zelarik ere. Baina orobat zekien, ez diola berezkoak jakingarririk eskaintzen galdegiten ez dakien, etengabe egibila ez dabilen gizakiari. Begiak zabalik zituen, zer ikusiko, zer ikasiko.

Haren atarian egin nuen bitarte labur hartan, guzi hoietaz jabetu nintzen eta baita egarritu ere Zubiriren eskuko zenbait idazlan irakurtzen hasteko. Ondorengo idazlanok irakurriz, zu ere iturrira bertara jotzeko haina egarrituko bazina, etzinake ez damutuko. Izan ere, Zubiri, zera oro, den oro —den dena— bere

*berezkoan hobeto ezagutzen lagun diezaigukeen jakintsu haundia
baita; gizon emakumeoi —geure banakako eta gizartezko bizi-
tzan— geure asmakizunen gezurpean ez erortzen lagunduko digun
jakintsurik argienetakoa.*

PEDRO MIGUEL ETXENIKE LANDIRIBAR

Isaban

1984. Aberri-Egunez.

Omenaldia - Homenaje

PEDRO MIGUEL ETXENIKE

CONSEJERO DE EDUCACION Y CULTURA
DEL GOBIERNO VASCO

*Gipuzkoako Diputadu nagusi Jauna
Carmen Castro andere agurgarria
herri agintariok
gizon-andreak
Agur, agur t' erdi.*

*J*oan zen udaran izan nuen Xabier Zubiri agurtu eta berarekin hitzegiteko aukera. Hondarribian igaro zituen azken egunetako baten arratsaldea osoa eskeni zidan eta han aritu ginen bere emazte Karmen eta hirurok —azken aldera Telletxea Idigoras Jauna ere gurekin genuela— elkarrizketa bizian. Bere ongina-hiari eta jakinduriari esker —eta iñola ere ez enere merezimen-duz— inoiz ahaztuko ez dudan arratsalde horietakoa bihurtu zait egun hartako hura.

Handik etxera bidean, sarritan gogoratzen dudan zerbait etorri zitzaidan burura: badirela gure herrian behar bezala ezakutzen ez ditugun bertako hainbat seme, halabeharrez beren bizitza atzerrietan daramatenak. Elkar ezagutu eta elkarren arteko harremanak sortu eta sendotzeko zerbait egin behar genukeela esaten nion neure buruari. Nere baitan bururakizun hoiek ausnartzen ari nintzela, ez nuen asko uste, gizon hain argia eta bere buruaren hain jabea ezagutu berri nuen Xabier Zubiri, egun gutxi barru hilko zitzaigula!

Baina, Xabier Zubiri, hilik bazaigu ere, etzaigu gure artetik erabat joan. Hor utzi dizkigu bere buru-bihotzen lekuko hainbat idazki. Hor ditugu, orobat, guk ez bezala, bera ondo-ondotik, berta-bertatik, ezagutzeko aukera izan duten hamaika ikasle eta pentsalari. Badugu, beraz, zeharka bederen, gure herriko seme honekin harremanak sortu era sendotzeko aukerarik. Gaurko egunez eta bere jaioterrian hasten ditugun ihardunaldiok, hain zuzen, ez dute hauxe beste asmorik: jatorriz eta bihotzez gure herrikide genuen Xabier Zubiri-ren eta gure arteko elkarrizketari ateak zabaltzea, haren ondarea eta mezua jasotzeko eta eztabai-datzeko aukera izan dezagun.

Hori da ospakizun hauen xede eta helburua. Elkarrizketa hori eragitea lortuko bagenu, zaila litzeteki jakitea, norik egiten dion nori omen: Xabier Zubiri-k Donostiari eta Euskalherriari ala guk hari. Dena den, nahiz eta guk bere omenetan ariko garela agindu dugun, zihur nago, elkarrizketa hontan gu aterako garela irabazle, ni berarekin Hondarribian egon nintzeneko hartan atera nintzen bezalaxe.

Zubirirekin egon ondoren etxera ninjoalarik, Barandiarango Joxe Miel ere ba zetorkidan gogora. Zubiri, ia beti, gure herritik kanpora. Barandiaran, berriz, ia beti gure herritik barrua. Baina bai batak eta bai besteak, ez dute gure Euskalherri hontan bere ikerlanak behar bezala burutzeko bitartekorik izan, Unibertsitatek ez, ikergintzarako dirurik ez, askatasunik ere ez. Gure eginkizuna, batez ere, euskaldunon herrigintza geure eskuz eratu nahi dugunona hain zuzen zera da. Sor ditzagula bitartekoak eta ebaki ditzagula bideak gure Herrian, Euskalherrian, bertako seme-alabak, geure nortasunari eta hizkuntzari uko egin gabe, mundu guziko ikerlarien elkartean parte hartzeko aukera izan dezagun.

Lo que sin duda puede parecer extraño es que sea yo quien abra las puertas de este diálogo en el que —por su obligado contenido— no parece pueda encontrar lugar adecuado el discurso político de las autoridades públicas. ¿Qué tiene que decir un político sobre una persona que no ha querido ser pública, que ha trabajado en el silencio, de un hombre retirado a quien se le ha tildado de no ser un intelectual a la moda, es decir, de

no querer influenciar con su opinión de filósofo el acontecer diario de la vida pública en cuanto política?

No me compete, desde luego, enjuiciar y valorar la obra filosófica de Zubiri. Tampoco caer en unas alabanzas huecas acerca de la importancia de su pensamiento. Sin embargo, creo poder referirme a algunas actitudes del filósofo Zubiri y, al recordarlas, formular algunos deseos y esperanzas sobre el futuro cultural y político de nuestra sociedad.

Zubiri ha sido filósofo. Su trabajo, en realidad toda su vida, ha estado dedicado a los temas fundamentales de la Filosofía. Voluntaria o involuntariamente —aunque más creo que lo primero— se ha circunscrito o limitado al ámbito específico y peculiar de la filosofía, sin querer influenciar, con su opinión de filósofo reconocido, la opinión pública sobre el acontecer diario.

Zubiri no ha caído nunca en lo que Ortega denominaba la “barbarie del especialismo”, es decir, en la barbarie del especialista competente en un campo limitado del saber, pero que se siente con autoridad para opinar sobre cualquier acontecimiento histórico o político.

Esta limitación de Zubiri a los temas propios de su ámbito vocacional y profesoral, no debe interpretarse como desprecio o indiferencia hacia otros ámbitos de la realidad. La actitud de Zubiri parece más bien testimoniar la profunda convicción de que no es posible una aplicación, una traducción directa y mecánica del saber y del conocimiento filosófico al mundo de la política y de la sociedad; que la relación entre los distintos ámbitos de la vida personal y social es diferenciada, las más de las veces indirecta, no lineal. Y a esta convicción subyace otra, más radical —pues en ella parece enraizarse todo el pensar filosófico de Zubiri—: la convicción de la riqueza, de la variedad de la realidad y del respeto que ella merece frente a todos los intentos de esquematización formalizada por parte de la mente humana.

Debemos agradecer a las personas que con su discurso y comportamiento hagan efectivas estas sabias prevenciones de Zubiri contra diversas formas —más o menos explícitas— de dogmatismo unidimensional en nuestro acercamiento a la realidad,

pues de esta manera estaremos quizá vigilantes para evitar totalitarismos ideológicos —más o menos utópicos, más o menos perfectos— que son la antesala del totalitarismo social y político con la correspondiente tiranía cultural.

El mismo Zubiri, voluntariamente dedicado a la construcción de una metafísica de la realidad —en todo su radicalismo— tuvo que soportar las secuelas de la guerra civil española. La transformación producida por el régimen franquista en el seno de las Facultades de Letras, imponiendo un escolasticismo con el que no quiso colaborar, le llevó —no sin heroicidad— a renunciar a la Cátedra en 1942.

Pero junto a la autorestricción que se ha impuesto Zubiri, y sin ninguna contradicción con ella, su trabajo de filósofo es ejemplo de apertura intelectual y curiosidad de sabio humilde por los conocimientos adquiridos y elaborados en otros ámbitos del saber. Zubiri no ha sido el filósofo que no sabe de matemática, de biología, de física, de las demás ciencias. Todo lo contrario. Ha estado siempre abierto para aprender, enterado de todo lo que sucede en el amplio mundo del saber humano.

Hoy sus escritos del 34, recogidos en su libro "Naturaleza, Historia y Dios" sobre la nueva física, son todavía fuente de reflexión para muchos físicos. Zubiri explica de forma clara los problemas de la física moderna, toda la obra de Heisenberg, Schrödinger, Dirak, Planck, incurriendo deliberadamente a veces en simplificaciones técnicas para así hacer más sugerentes algunas ideas difíciles. Zubiri, al hablar de física, huye con gran acierto de acantonarse en formulismos técnicos, que por lo demás —como él mismo dice— son muy fáciles de reproducir.

Y Así como su autorestricción no le ha impedido mirar por encima del campo específico de la filosofía para plantear ésta sobre la base del rico y variado saber humano interdisciplinar, de la misma manera su apertura a los nuevos saberes, no implica la renuncia a ocuparse de los temas básicos y fundamentales de toda verdadera filosofía. Se ha dicho de Zubiri que es el último metafísico —ya desde Kant se viene celebrando periódicamente el funeral de la metafísica—. Y es verdad, en tanto en cuanto

Zubiri no renuncia a plantearse los problemas básicos de la filosofía: la realidad, la relación del hombre con la realidad, el hombre como persona, Dios.

En un mundo en el que las fronteras entre filosofía y literatura, pensamiento y ocurrencia, se han desdibujado en un mundo, en el que parecen surgir continuamente temas nuevos, nuevas orientaciones, grandes descubrimientos, nuevas escuelas, modas, nombres fulgurantes que se apagan antes de encenderse: Zubiri y su trabajo nos hacen concebir la esperanza de que la humanidad, la sociedad, aún tiene la capacidad de no perder el norte, de no sucumbir en la vorágine de una realidad que aparentemente sólo consiste en el cambio continuo, de sustraerse de la tentación de superficialidad y dedicar sus esfuerzos a las preguntas fundamentales que siguen permaneciendo dentro de un cambio innegable.

Y por fin Zubiri, un filósofo nacido en San Sebastián, salido del Pueblo Vasco. Como otro filósofo oriotarra, Juan Zaragüeta, o como el casi olvidado Ramón Izagirre, y Paulino Garagorri, y otros. Frutos, quizá no del todo merecidos, de un pueblo pequeño, a quien a veces se le acusa de incultura —después de haberle negado la infraestructura necesaria para ello, por supuesto—, pero que dentro de su estrechez, de sus agobios, de sus problemas y dificultades, ofrece personas creadoras de verdadera cultura, tanto en euskera como en castellano y francés, personas como las ya citadas que hacen que este pueblo siga vivo y por lo tanto creador.

Permítanme terminar expresando no sólo nuestro reconocimiento sino nuestra gratitud a Xabier Zubiri por su obra. Gratitud extensiva a aquellos que han hecho posible este ingente trabajo de un hombre que por la universalidad y profundidad de sus conocimientos bien merece ser llamado el "Aristóteles del Siglo XX". Gratitud en especial a su esposa y mejor amiga, Doña Carmen de Castro.

Hoy, el Gobierno Vasco, el pueblo vasco rinde homenaje con legítimo orgullo a los Sres. de Zubiri y les agradece porque

su obra es muestra de nuestra universalidad potencial, porque enseña que nuestro pueblo y sus gentes son capaces de crear cultura universal y duradera; lo que nos abre enormes esperanzas de que motivados por su ejemplo, podamos seguir contribuyendo desde nuestra indeclinable condición de vascos, a la cultura universal.